

TRANSKRIPZIOA

JOSU- Eta?. Zer erosi nahi duzu plazan, Amaia?

AMAIA- Hainbeste otordu egin ditugu, orain garbi jateko garaia da. Barazkiak eta fruta. Ados?

JOSU- A zer erremedio! Bestela...

AMAIA- Bai, bai. Garbiketa egin behar dugu. Begira azalore horiei.

BASERRITARRA- Egun on! Hara, zuek berriz hemen?

AMAIA- Uj, ez naiz konturatu, aurreko eguneko postua da hau.

BASERRITARRA- Bueno, bueno, bueno, ikasi duzue: edo oso goiz edo oso berandu etorri behar da, jende askorik ez egoteko.

AMAIA- Bai, azkeneko orduan etortzea erabaki dugu.

ETENA

BASERRITARRA- Ondo da. Zer nahi duzue?

JOSU- Ba... barazkiak eta fruta.

AMAIA- Azalore horiek itxura ederra dute.

BASERRITARRA- Ederrak daude eta! Atzo arratsaldean baratzean zeuden oraindik. Fresko-freskoak dira!

AMAIA- Ba jarri hori. Bai, bai, handi hori, etxean asko gara eta.

BASERRITARRA- Bista ona duzu, neska!

JOSU- Eta tomate batzuk, mesedez.

BASERRITARRA- Ba gaur ez dira asko sobratu, baina itxaron pixka bat, ondokoari eskatuko dizkiot!

JOSU- Amaia, badirudi gaur txukun ari dela gurekin.

AMAIA- Bai, bai, aurrekoan ez zen batere ondo portatu.

JOSU- Eta gu ere ez gaude ohituta plazan erosketak egiten. Eta horregatik adarra jotzen digute.

BASERRITARRA- Bueno, hemen dituzue hauek. Igeldokoak dira, bikainak!

AMAIA- Oso ondo.

JOSU- Eta sagar batzuk ere bai, mesedez.

BASERRITARRA- Bertako errege-sagarrak ditut. Txikiak dira, baina oso-oso onak. Probatu zati bat.

AMAIA- Mm, ederra dago, bai! Jarri bi kilo, mesedez.

BASERRITARRA- Oso ondo. Besterik?

JOSU- Ez. Zenbat da dena?

BASERRITARRA- Itxaron pixka bat... Azalorea, tomateak, sagarrak...24 euro.

AMAIA- Tori. Agur!

Josu eta Amaia badoaz.

ETENA

JOSU- 24 euro?

AMAIA- Bai, ez naiz jabetu; askotxo, ezta?

JOSU- Askotxo? Gehiegi! Hiru gauza erosi eta...

AMAIA- Adarra jo al digu?

JOSU- Inozo aurpegia ikusi digu.

AMAIA- Ba epelak entzun beharko dizkit! Itxaron hemen!

JOSU- Uztazu, Amaia, ez dizu kasorik egingo. Ez gara berriz beregana joango eta kito. Amaia, Amaia...!

JOSU- Kaka zaharra!

ENTZUN AURRETIK

1.1 Plazan ala supermerkatuan?

Plazan erosi ala supermerkatuan erosi, adierazi aldeak

	AZOKAN edo PLAZAN	SUPERMERKATUETAN
Produktuak egunerokoak dira		
Askotan garestiagoak dira		
Gehienetan, bertako produktuak dira		
Produktuen aukera gutxiago egoten da		
Saltzailearekin harreman hurbilagoa		
Besterik?.....		

Bikoteka, azaldu zer nahiago duzun eta zein abantaila dituen

- Nik nahiago ditut azokak. Produktuak sasoikoak dira eta, gainera, normalean hemengoak.
 - ❖ Bai, baina azoketan aukera gutxiago egoten da.

2. ENTZUN BITARTEAN

2.1 Goazen erosketak egitera!

Amaia eta Josu azokan daude, eta saltzailearekin ari dira hizketan. Entzun elkarrizketaren lehen atala eta ondoren aukeratu erantzun zuzena.

Amaiak zer erosi nahi du?	Non ari dira erosketak egiten?	Saltzaileak Josu eta Amaia ezagutzen ditu?
<ul style="list-style-type: none">• Porruak eta piperrak• Barazkiak eta fruta• Fruta eta tomateak	<ul style="list-style-type: none">• Denda txiki batean• Beraien auzoko supermerkatuan• Azokan	<ul style="list-style-type: none">• Ez, ez ditu inoiz ikusi• Bai, txikitatik• Bai, lehen joan ziren Postu horretara

2.2 Nork esan du?

Orain entzun berriro, baina elkarrizketa osoa. Beheko esaldi horiek nork esan ditu? Markatu X bat dagokion tokian. Ondoren, alderatu erantzun lagunarekin.

Esaldiak	Amaiak	Josuk	Baserritarrak
Orain garbi jateko garaia da			
Hara, zuek berriz hemen?			
Begira azalore horiei!			
Badirudi, gaur txukun ari dela gurekin			
Bista ona duzu, neska!			
Mm, ederra dago, bai! Jarri bi kilo, mesedez!			
Ez, zenbat da dena?			

2.3 Hauek bai ederrak!

Elkarrizketan produktu hauei buruz ari dira. Entzun berriro elkarrizketa eta markatu X batekin zein produktuz ari diren. Alderatu erantzunak zure lagunarekin.

	AZALOREA	TOMATEAK	SAGARRAK
Ba, gaur ez dira asko sobratu			
Horiek itxura ederra dute			
Igeldokoak dira, bikainak!			
Txikiak dira, baina oso-osonak			
Mm, ederra dago, bai!			

3. ENTZUN ONDOREN

3.1 Hizkuntzari erreparatu

Dendariak:

Zer nahi duzu? Zenbat behar duzu?
Hemen dituzu hauek: bertakoak dira, Igeldokoak.
Oso ondo, besterik?
Probatu zati bat.

Bezeroak:

Zenbat balio du kiloak? Zenbat da dena?
Horrek itxura ederra du! Jarri bi kilo, mesedez!

Haserrea adierazteko:

Adarra jo digu! Epelak entzungo ditu

Gogoratu elkarrizketaren zati bat. Azpimarratu goiko laukiko esapideak edo horien antzekoak.

BASERRITARRA- Ondo da. Zer nahi duzue?

JOSU- Ba... barazkiak eta fruta.

AMAIA- Azalore horiek itxura ederra dute!

BASERRITARRA- Ederrak daude et! Atzo arratsaldean baratzean zeuden oraindik.

Fresko-freskoak dira!

AMAIA- Ba jarri hori. Bai, bai, handi hori, etxean asko gara eta.

BASERRITARRA- Bista ona duzu, neska!

JOSU- Eta tomate batzuk, mesedez.

BASERRITARRA- Ba gaur ez dira asko sobratu, baina itxaron pixka bat, ondokoari eskatuko dizkiot!

BASERRITARRA- Oso ondo. Besterik?

JOSU- Ez. Zenbat da dena?

BASERRITARRA- Bertako errege-sagarrak ditut. Txikiak dira, baina oso-oso onak.
Probatu zati bat.

AMAIA- Mm, ederra dago, bai! Jarri bi kilo, mesedez.

BASERRITARRA- Oso ondo. Besterik?

JOSU- Ez. Zenbat da dena?

3.2 Zenbat behar duzu?

Osatu elkarrizketa hauek zerrendako esapideekin. Egin binaka eta gero konparatu erantzunak zure lagunarekin.

Fresko-freskoa daukazu / Zenbatean dago kiloa? / Zer nahi duzu? / Besterik behar duzu? / Zenbat behar duzu?

Ekarrizketa

D.- Egun on! Gaur goiz etorri zara.....

A.- Bai egun on! Legatza nahi dut, baina oso-oso freskoa.

D.- Bista ona duzu! Bai,

A.- Baina, garesti egongo da, ezta?.....

D.- Gaur nahiko merke. Kiloa 9 eurotan dago.....

A.- Ba, jarri, bi kilo mesedez!

D.- Oso ondo!

A.- ez, besterik ez!

3.3 Ze adarra jotzen ala?

Josuri eta Amaiari baserritarrak adarra jo die eta haserre daude. Zer erabaki dute?

- Baserritarrarengana joatea
- Baserritarrarengana ez joatea

Jarri zaitetzte beren tokian eta binaka erabaki: Ondo egin dute Amaiak eta Josuk?

Batzuk bezero eta beste batzuk baserritar izango zarete. Binaka pentsatu zer esan eta antzeztu egoera.

Azaldu talde handian. Nola konpondu duzue arazoa?